

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Defentsa Ministerioak beraien arteko elkarlana berritu dute prestakuntza, kultura eta gizarteko jardueretarako

Barcina Lehendakariak eta Nafarroako komandante militar González Arteagak datozen lau urteetarako hitzarmenaren edukia aztertu dute

Viernes, 14 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak eta Defentsa Ministerioak beste lau urteetarako berri dute bi erakundeek 2009ko maiatzaren 29an izenpetu zuten lankidetzarako hitzarmen-esparrua prestakuntza, kultura eta gizarteko jarduerak egiteko. Jarduera horiek bilatzen dute, beste helburu batzuen artean, Nafarroako ondare historiko-militarra hedatzea, bai eta bakea, segurtasuna eta defentsari lotutako gaiak hedatzea ere.



Barcina Lehendakaria eta González Arteaga komandante militarra, hitzarmena elkarri ematen.

Hitzarmenaren edukia ostiral honetan aztertu dute Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak eta Nafarroako komandante jeneral militar González Arteagak, Foru Gobernuaren egoitzan.

Testuak dioenez, bi aldeek "elkarrenganako interesa" agertu dute elkarlanean jarraitzeko Indar Armatuak osatzen dutenen sustapen soziala eta profesionala hobetze aldera, Nafarroarekiko beren harremanak areagotzeko eta segurtasun nahiz defentsaren balioak elkartasunaren, elkar ulermenaren eta bakearen iraupenaren esparruan zabaltzeko

Hitzarmenak jasotzen ditu: Nafarroaren errealitate historiko, sozial eta kulturalaren ezagutza eta zabalkundea hobetzeko ekintzak, bai eta bakeari, segurtasunari, defentsari eta Indar Armaturen zereginari lotutako gaiei buruzkoak ere; Nafarroaren ondare historiko-militarra hedatzea eta haren errekonstruzioan laguntza ematea; eta Nafarroako izaera historikoko instalazio militarren erabilera sustatzea.

Gainera, militarrei beren prestakuntza pertsonal eta profesionala hobetzeko jardueretarako sarbidea errazteko ekintzak barnean hartzen ditu, bai eta beraien bizitza pertsonaleko proiektuen nahiz gizarteratzeko hobekuntzan eragina izango duten jardueretarako sarbidea errazteko ere.

Jarraipen-batzorde misto bat dago, eta hura Nafarroako Gobernuko

zazpi kidek eta Defentsa Ministerioko seik osatzen dute. Batzorde horren ardurak dira: ekintzak proposatzea, hitzarmena interpretatzeko eta betetzeko sor daitezkeen arazoak konpontzea, eta adostutako jardueren jarraipena egitea, bai eta jarduera horien emaitzak ebaluatzea ere.

Gogoratu behar da, Nafarroako Gobernua eta Defentsa Ministerioa 1999. urtetik ari direla elkarlanean alor horretan, lankidetzarako zenbait hitzarmenaren bidez.